




ALTZA Herrera / Larratxo / Oleta

Egunak
Ordutegia
Tokia

2015 /11/17 eta 2015 /11/18
19:00 – 21:00
Casares Kultur Etxea



DEITUTAKOAK

OLETA Auzo Elkartea
ELKARTASUNA Auzo Elkartea

OSTEGUNA Auzo Elkartea
HERRIPE Auzo Elkartea
ALTZA XXI

Hirigintza, Bide Publikoak eta Herri Partaidetza
Udal ordezkari politiko eta teknikoak

BERTARATUAK

OLETA Auzo Elkartea = 2 kide
ELKARTASUNA Auzo Elkartea = 3 kide

OSTEGUNA Auzo Elkartea = 1 kide
HERRIPE Auzo Elkartea = 1 kide
ALTZA XXI = 1 kide

Udaleko Partaideak

Duñike Agirrezabalaga, Zinegotzia
Miguel Ángel Diéz Bustos, Zinegotzia
Jurdana Arruabarrena, Teknikaria
Iñaki Otamendi, Teknikaria

Helburua:

Hiri eta Azpiegitura eta Zerbitzuen inguruan beharrak jaso eta hobekuntza proposamena jasotzea, hauen jarraipena egitea eta gai honekin zerikusia duten inguruko informazioa ematea.

Udala eta Auzo Elkarteen arteko gertutasunezko harremanak lantzea eta lan kolektiboa sustatzea.

Altzako egoera bi batzarretan aztertu zen,

A.) 2015/11/17

OLETA AE / AV
ELKARTASUNA AE / AV

B.) 2015/11/18

OSTEGUNA AE / AV
HERRIPE AE / AV
ALTZA XXI AE / AV

Landutako gaiak

ALTZA	ARRIA SANTA BARBARA ALTZA GAINA	OLETA	LARRATXO	HERRERA
1. Barrutia	1. Inausketak	1. Auzoko lokala	1. Irisgarritasuna	1. Arrobitxulo
2. Kiroldegia	2. Irisgarritasuna	2. Seinaleak, trafikoa, arazoak	2. Larratxo pasealekuko igogailua	2. Kirol eremua
3. Auditx-Akular	3. Arazoak	kamioiekin	3. Oinezkoen gunea	3. San Luis Gonzaga plaza
4. Berrako autobus geltokia	4. Espaloietan aparkatzea	3. Irisgarritasuna	4. Umeentzako jolas eremuak	4. ETS obrak Oletako beheko eremuan
	5. Santa Barbarako eskailerak		5. Larratxo pasealekua 24-26 atzealdea	5. Herrera
	6. Anbulatorioa		6. Larratxo pasealekua 46-56	
	7. Asfaltatzea		7. Inausketak	
	8. Iberdrola: Goi- tentsioko kableak		8. Jai ekitaldietarako baimenak	
			9. Iberdrola: Goi tentsioko kableak eta konponketak	
			Txingurri	
			10. Txingurri pasealekurako sarbidea	

1.

ALTZA

1. BARRUTIA

Bi zinegotziek azaldu dutenez, Udala, orain, barne planifikazioko eta antolakuntzako lanetan dihardute, Ekialdeko Barrutia sortzeko helburuarekin. Barruti horretan Altza, Intxaurren, Bidebieta eta Mirakruz sartzen dira. Asmoa ez da instituzionalizazio bikoitza sortzea; aitzitik, kudeaketa eredu hobe bultzatu nahi da, zuzenagoa eta eraginkorra. Biltzarrean onartu zen barrutien arautegian alderdi oso generikoak daude eta prozesua zehar zehaztuz joango dira.

2016 honetan Barrutia antolatzen lan egingo dugu eta 2017ko aurrekontua egiten denean planifikatzeko aukera ezin hobe izango dugu.

Elkarteek hiritarrak kontuan hartzeko eskatu dute, planifikazioan, lehentasunak ematean, eta abar...

Udala elkartearen eta hiritarren ekarpenak jasotzeko prest dago.

2. KIROLDEGIA

Obrak 2016ko udan hasia aurreikusi da. 8 kaleko igerilekua ziurtatuta dago eta gimnasia erritmikoko eremuak altuera eta luzera egokiak izango ditu. Ingurumen kalitate iraunkor eta energetikoaren neurriak hartu dira.

Elkarteek auzoa eta erabiltzaileak kontuan hartzeko eskatu dute.

Udalak Altzara joateko konpromisoa hartu du, egite prozesua nolakoa izango den azaltzeko.

3. AUDITZ-AKULAR

Altza XXleko auzolanean lan egin du Auditiz-Akularreko zenbait eremutan, zehazki, Tomasenen eta Eguzkitzagainan.

Udalari eremu hori mantentzeko eskatu dio, belarra aldian-aldian moztuz eta ez noizbehinka.

Ortu pribatuak daude udalaren lur publikoetan, Eguzkitzagainan, eta baita atzeko ate eta guztiko esparru itxia ere.

4. BERRAKO AUTOBUS GELTOKIA

Markesina bat eskatu dute Berrako zaharren egoitzako autobus geltokirako. Eskatera Mugikortasunera bidali da.

ALTZAKO GOIKO ALDEA

1. INAUSKETAK

Elkartasuna elkartearen iritziz, inautetako premia dago Casares pasealekuan, 53. zk.an eta atzealdean.

Eta frontoiaren sarreran ere bai.

71-74 zenbakien inguruan sustrai handiak dauzkan zuhaitza dago.

Harri Berriko biribilgunean, Santa Barbararantz, dagoen zebra bidean ikuspena urria da.

Harri Berriko atzealdean, 6 zenbakiaren inguruan, garajeen aldean dagoen eremua oso umela eta iluna da eta hori kale argiak estaltzen dituzten zuhaitzen ondorioz gerta daiteke.

2. IRISGARRITASUNA

a.) Altzako pasealekua/Roteta

Gaur egun, Altzako pasealekuaren eta Rotetaren arteko konexioa eskaileren bidez baino ezin da egin eta irisgarritasun arazoak daude minusbaliatuentzat edota, besteak beste, gurpil-aulkiak eta umeen aulkiak erabiltzeko.

Zinegotziak azaldu duenez, Udaleko teknikaria eremu hori aztertzen hasi da eta, bideragarria bada, 2016an proiektua gauzatu ahal izango da.

b.) Hilerria, Eraikuntza Institutua, Nao Etxea, Elizasu

Elkartasunak alde horretarako igogailuaren proiektuari buruz galdetu du.

Zinegotziak azaldu duenez, 2016ko aurrekontuan partidak sartuko dira, irisgarritasun bertikaleko proiektuak egiteko Jolastokietarekin eta Altzako Alde Zaharrarekin.

Larratxoko Elkartasuna eta Osteguna elkarrekin planteatu dutenez, orain Larratxon dagoen igogailua Txirrita bertsolaria kaleko 56-58-60 zenbakiekin konektatu behar da.

3. ARAZOAK KAMIOIEKIN

Herreratik, kamioi handiak igotzen dira, okerreko bidea hartuta, eta trafiko arazoak sortzen dira. Elkartasunak seinaleztatzeko hobe eskatu du, kamioiek bide zuzena zein den eta zein ez den jakin dezaten.

4. ESPALOIETAN APARKATZEA

Bere garaian elementuak instalatu ziren espaloietan aparkatzea eragozteko. Elkartasunak espaloietan aparkatzeko ohitura txar hori mantendu egiten dela salatu du eta Udalari erantzuteko eskatu dio. Horrez gain, ipinitako elementuak, altuera txikikoak direnez, ez direla egokienak azpimarratu du.

5. SANTA BARBARAKO ESKAILERAK

Eskailera batzuk itxi egin ziren geltoki berriko obregatik, baina oraindik ez dira ireki eta, horrez gain, barandak garbitu egin behar dira.

Udalak ETSri jakinaraziko dio.

6. ANBULATORIOA

Elkartasunak, besteak beste, zabalanteko eremuei eta anbulantziarako eremuari buruz galdetu du.

Zinegotziak planteatu duenez, geltoki berria amaitzen denean eremu hori guztia nola geratuko den aurreikusi beharko da.

7. ASFALTATZEA

Elkartasunak planteatu duenez, Casares-eko bihurrian ere esku hartu beharra dago.

8. IBERDROLA: GOI TENTSIOKO KABLEAK

Auzoko hainbat lekutan dauden Iberdrolaren aireko hodiak lurperatzeko premia aztertzeke proposatu dute.

OLETA

1. AUZOKO LOKALA

Oletako auzokoen elkarteak egiaztatu zuenez, Oletarako erreferentzia esparrua behar da. Alde hartan udalaren lokalik ez dagoenez, lokala alokatzea erabaki dute. Proiektu hori udalak nolabait bultzatzeko aukerarik dagoenez galdetu dute.

Herriarren Partaidetza saileko zinegotziak azaldu duenez, 2016ko aurrekontuan Udalak Elkartearekin lankidetzan jarduteko eraren bat aurkitzen saiatuko dira.

2. SEINALEAK, TRAFIKOA, ARAZOAK KAMIOIEKIN

Kamioiak okerreko bidea hartu eta gero Oleta galtzadatik atera ezinda ibili ez daitezen, seinaleak ipini behar dira Herrera pasealekuarekiko gurutze bidean.

Oletako elkarteak, halaber, ispilua jartzea eskatu du Nerecan dagoen aldean, zeren ikuspen arazoak baitaude.

Zinegotziak planteatu duenez, eremu hori amaitzen denean, biribilgunea sortzeko aukera aztertu beharko da.

3. IRISGARRITASUNA

Zerbitzuak falta direla ikusita eta beste alderdi batzuetara joateko bide bakarra eskailerak direnez, Oleta elkarteak mikrobus bat jartzea proposatu du, Herrerarekin eta Altzako goiko aldearekin konektatzeko.

Horrez gain, bidegorrirako sarbidea konpontzea aldarrikatzen dute, zeren eskailerak baino ez baitaude eta eskailerok oso aldapatsuak baitira.

Pikabeako alderako, Udalak hobetzeko jarduera txikietarako partida dauka; jarduera horiek egiteko auzokoekin harremanetan jarriko da, zeren lan jakin batzuk egiteko haien baimena beharko baita.

Oleta elkartearen harremanetan dago alde horretako auzokoekin eta prest dago laguntzeko.

Oletak bere garaian egokitu gabe geratu zen auzoko aldearen irisgarritasun azterketa egitea eskatu du.

LARRATXO

Osteguna elkarteak batzar hauetan konpromisoak gauzatzeko benetako urratsak eman daitezzen eskatu du, zeren haren iritziz gaiak errepikatu egiten baitira eta beste batzuk konponbide erraza baitute...

1. IRISGARRITASUNA

Ostegunak eta Elkartasuna elkarteak Herrerako aldearekin zein Hilerriko aldearekin konektatzeko lanak egin daitezzen eskatu dute.

Zinegotziak azaldu duenez, 2016ko aurrekontuan partidak sartuko dira, irisgarritasun bertikaleko proiektuak egiteko Jolastokietarekin eta Altzako Alde Zaharrarekin.

2. LARRATXOKO IGOGAILUA

Ostegunak Larratxoko igogailuaren egokitze lanak amaitzeko eskatu du: baranda herdoilduak eta lurra.

Zinegotziak jakinarazi duenez, kristalak jarrita daude dagoeneko eta orain aurrekontuak eskatu dira barandak eta lurra egiteko.

3. OINEZKOEN GUNEA

Auzokoen elkarteak adierazi duenez, 1996 urtetik gai hori errepikatu egiten da eta inoiz ez da erabat gauzatzen: Lurra lehertu duten zuhaitz sustraiak daude, arazoak daude zolatuarekin, txorkoekin edota loreontziekin, eta zenbait pibote desagertu egin dira eta beste batzuk hautsita daude...

4. UMEENTZAKO JOLAS EREMUAK

Ostegunak alde zuzenetik esan izan duenez, umeentzako jolas parkea txiki geratu da.

Bestalde, goian dagoen arrosa landarearen egoera oso txarra da eta gunek kaltegarria da osasunerako.

Udalak arrosa landarearen egoera aztertu du eta, gaur egun dituen aldapa eta inklinazioa ikusita, konponbide zaila du. Hala ere, eremu osoa berregituratzea planteatu da.

5. LARRATXO PASEALEKUA 24-26 ATZEALDEA

Udalak eman du konponbidea, dagoeneko, Ostadar emakumeen elkartearen egoitzako sarbiderako.

Ostegunak osoko konponbidea eskatu du eremurako, zeren kalea eta espaloiak oso gaizki baitaude eta garaje eta lokalen jabeek euren kontura egin baitituzte konponketak.

Udalak badaki hori eta egoera aztertzeko eta konponbideak aurkitzeko proiektua egingo du; hala ere, osoko berregituraketa garestia izango litzateke, zeren eremuan hainbat inklinazio eta maila baitaude.

6. LARRATXO PASEALEKUA 46-56

Ostegunak behin betiko konponbidea eskatu du eremuko sarbiderako. Eta oztopo arkitektonikoak desagertzea.

Zinegotziak adierazi duenez, gutxi gorabehera, aurrekontuko 160.000 euro erabiliko dira konponbide horretarako.

7. INAUSKETAK

Ikastetxea: Zume negartia patioaren barruan eta beste zuhaitz bat fatxadan.

Inausketez arduratzen den teknikaria Larratxon egon zen joan den astean eta konponbideak aztertzen ari da.

Igogailutik hurbil dagoen zuhaitza.

Udal teknikariaren ustez, auzokideei galdetu beharko litzaieke zuhaitza moztu behar den ala ez, behin betiko konponbidea emateko.

Txingurrin eta Txirrita 2-4 zenbakietako atzealdean ere inausketak egin behar dira.

8. JAI EKITALDIETARAKO BAIMENAK

Auzokoen elkartearen iritziz, Larratxon ekintza gehiago egon beharko lirateke:

Alde batetik, Udalak berak ekitaldi gehiago antolatu beharko lituzkeela uste dute.

Bestetik, elkarteek erraztasun gehiago izan ditzaten, izapideak erraztu beharko lirateke. Kexu dira, aseguruak beharrezkoak direlako.

Udalak azaldu duenez, aseguruak nahitaezkoak dira eta ekintza bakoitza antolatzen duen erakundeak du haien erantzukizuna.

8. IBERDROLA: GOI TENTSIOKO KABLEAK ETA KONPONKETAK TXINGURRIN

Ostegunak Udalarari eskatu dio Iberdrolari legea betearaztea eta hiri eremuak zeharkatzen dituzten goi tentsioko kableak lurperatzea; adibidez, Herrerako zelaitik Txingurriko dorretxorainokoak.

Txingurri aldean, Ostegunak bazterreko babesa kentzeko eskatu du, zeren, Iberdrolako obrak direla eta, hormigoia euskarria falta baita.

Udala Iberdrolarekin negoziatzen ari da eta hitzarmenak lortzen ari dira, baina tramitazioak luzeak eta zailak dira. Behar diren eskaerak beteko ditu.

9. TXINGURRI PASEALEKURAKO SARBIDEA

Ostegunak azaldu duenez, Txingurri pasealekuan segurtasun neurriak hartu behar dira, oinezkoentzat zein ibilgailuetarako eta autobus geltokia ere hobetu egin behar da.

Udalak Mugikortasun sailaren bidaliko du eskaera.

HERRERA

1.) ARROBITXULO

Herripe elkarteak Arrobitxuloko proiektuaren bilakaeraz galdetu du.

Udala aurrera pausuak ematen ari da proiektu honekin eta auzokideen elkarteek bisita gidatua egitea aurreikusita dago. Bisita horretan langile teknikariek parte hartuko dute.

2.) KIROL EREMUA

Herripe elkarteak planteatu duenez, beharrezkoa da Txingurritik bidegorrirainoko eremuak konektatzea.

3.) SAN LUIS GONZAGA PLAZA

Igogailura atxikitako partean, Herripek lehen plaza eta goiko aldea lotzen zituzten eskaileretan lan egitea eskatu du: ez dute inolako funtziorik betetzen, zaindu gabe daude, argirik gabeko gune iluna da eta gazteek erabili ohi dituzte, eta arazorik sortzen ez badute ere, degradatzen ari den lekua da.

Trenbideen zubiari eta azpitik pasatzen den errepideari, eremu hura duintzea komeniko litzateke: Argi gehiago, esparru berdeak... Horrez gain, oinezkoen eremuan jausten den ura dela eta, pertsonak aparkalekuetan zehar pasatu behar izaten dute.

Herripe hiritarrek parte hartzeko proiektua bultzatzen ari da, jendea berregituraketan inplikatu dadin.

4.) ETS OBRAK OLETAKO BEHEKO EREMUAN

Obren amaieran hainbat gauza egin beharko dira: eremua berregituratu, aparkalekuen eta eremu berdeen falta konpondu, begiratokiko eremua berregituratu... Aparkatzeko zein aisialdirako premiak kontuan hartu behar dira.

Herripek batzarra aurreikusita du ETSrekin.

Zinegotziak erantzun duenez, Udala inplikatu egingo da.

5.) HERRERA

Eremuan hainbat erakundek dihardute: Portu Agintaritza, Eusko Jaurlaritza, Aldundia, Pasaiaiko Udala...

Eremu osoa berregituratu egin behar da, esaterako, pilotalekuaren berreraiketa edo ezkien plaza.

Beste auzi bat, Herrera eta Trintxerpe arteko komunikazioa da.

Topo trenaren geltokiaren eta Trintxerperen arteko biderako proposamen bat dago, baina Herriperen iritziz ez da egokia. Udala gehiago inplikatu beharko litzatekeela uste dute, konponbide hobea aurkitzeko.

Zinegotziak adierazi duenez, batzarrak egin dira eta zenbait konpromiso hartu dira: zarataren aurka babesteko holtzak, hautsaren aurkako neurriak... Txingurriko estropadari buruzko azterketa egingo da.